

ETIKAK ETA PRINTZPIOAK
PERMAKULTURAN



MAIA PERMACULTURE.COM

ETIKAK ETA PRINTZIOAK PERMAKULTURAN

Permakultura bizitza ekologiko eta
jasangarrirako diseinu-sistema bat da.
Hiru etika nagusitan oinarritzen da:

Lurraren Zaintza
Pertsonen Zaintza
Bidezko Banaketa

Diseinu printzipio asko daude, modu
askotan azaldu daitezkeenak. Baina
denek, benetan birsortzaileak diren
sistemak diseinatu eta sortzeko aukera
emango digute.





MAIA PERMACULTURE.COM

ETIKAK

**Lurraren Zaintza
Pertsonen Zaintza
Bidezko Banaketa**

.

Permakultura-diseinuaren oinarrian dauden hiru etika hauek, ingurunearekin oreka erlatiboan egon diren edo izaten jarraitzen duten gizarte tradizionalen ikerketetatik atera dira.

Horrek, etorkizun birsortzaile baterako trantsizioaren testuinguruan, ez du aurrerapen modernoak alde batera utzi behar ditugunik esan nahi; gizadiaren historian zehar eraginkortasuna frogatu duten balio eta kontzeptuak ahaztu ez ditzagula baizik.



M A I A P E R M A C U L T U R E . C O M

LURRAREN ZAINTEZA



PERTSONEN ZAINTEZA



BIDEZKO BANAKETA





MAIA PERMACULTURE.COM

PRINTZPIOAK

Permakultura diseinu kontziente eta etikoaren sinonimo da.

.

Mollisonen eta Holmgrenen lankidetzatik printzipio multzo bakar bat atera ez zenez, printzipioen adierazpena autorearen arabera aldatzen da. Dena den, permakulturaren printzipioak gure diseinuetan gidari ditugun diseinu-tresna globalak dira.

Printzipioak erraz gogoratzen, eta pixkanaka intuitibo bihurtzen dira; eta, esperientziarekin, modu naturalean aplikatuko ditugu.





BEHATU d **ELKARRI ERAGIN**

Naturarekin bat eginez, gure egoerara egokitzen
diren irtenbideak diseinatu ditzakegu.



“Behatzen
duenaren
begietan dago
edertasuna.”



ENERGIA LORTU & BILDU

Ugaritasun garaian bilduz urritasun garaian
erabili dezakegu bildutakoa.



“Denean eguzki,
oihalak heda.”



ONURAK ESKURATU

Sistemek komunitatearen biziraupena bermatuko
dituzten fruituak eman behar dituzte.
Uzta planifikatu!



“Sabel betea,
urrun nekea.”



AUTOERREGULAZIOA EZARRI or ATZERAELIKADURA ONARTU

Sistemek ondo funtzionatzen jarrai dezaten,
jarduera desagokiak baztertu behar ditugu.



“Deliberazio
guztietan, 7.
belannaldiarengan
duen eragina
kontuan hartu.”

Kaianerekowa
— Nazio Irokesen Bake —
Lege Nagusia



ZERBITZU & BALIABIDE BERRIZTAGARRIAK ERABILI & BALORATU

Gure portaera kontsumista eta baliabide ez
berriztagarrien mendekotasuna murrizteko,
naturaren ugaritasuna aprobetxatu.



“Naturak bere
bidea har
dezala.”



HONDAKINIK EZ SORTU

Eskura ditugun baliabide guztiak baloratu eta
aprobetxatuz, ez da ezer xahutzen.



“Eskuak
garbitzea baino,
ez zikintzea
hobe.”



EREDUETATIK XEHETASUNETARA DISEINATU

Naturaren ereduak ardatz gisa hartuz,
xeheetasunekin osatuko ditugu diseinuak.



“Zuhaitzak ez
du basoa
ikusten uzten.”

BEREIZI BAINO, INTEGRATU

Elementu egokiak leku aproposan kokatuz,
lankidetza harremanak garatzen dira eta sistema
indartzen da.



“Esku askok
lana arintzen
dute.”



KONPONBIDE TXIKI & MOTELAK ERABILI

Sistema txiki eta motelak errazago artatzen dira,
tokiko baliabideak hobeto aprobetxatu
eta emaitza iraunkorragoak lortzen dira.



“Poliki ta astiro,
beti ez tiro.”



DIBERTSITATEA ERABILI & BALORATU

Aniztasunak mehatxu desberdinerekiko
ahultasuna murrizten du eta ingurunearen
izaera berezia aprobetxatzen du.



“Arrautza
guztiak saski
berean ez
gorde.”

ERTZAK ERABILI & MARJINALA AINTZAT HARTU

Ertzetan ematen dira gertaera interesgarrienak.
Hauek baitira sistemako elementu baliotsuenak,
anitzenak eta onuragarrienak.



“Ez pentsa bide
onetik zaudenik
bide ezaguna
delako bakarrik.”



ALDAKETEI SORMENAREKIN AURRE EGIN

Eragin positiboenak behaketaren eta irtenbide
berritzaileak aplikatzearen ondorioz
datoz.



“Ikuspegia ez da
gauzak diren
bezala ikustea,
izango diren bezala
ikustea baizik.”

ERESILIENTZIA BILATU

Oztopoei aurre egiteko sistemak eraiki, funtzio,
egitura eta atzeraelikadura-mekanismoak
erabiliz.



“Ezin dituzu
olatuak gelditu,
baina surfean
ibiltzen ikas
dezakezu.”



KOKAPEN ERLATIBOA EDO DENA BERE TOKIAN

Osagai bakoitzaren etekin nahiz hondakinek beste
osagai batzuen beharrak asetu dezaten diseinatu.



“Leku batzuk
buru-hausgarriak
dira.

Beste batzuk
azalpena.”



ARAZOA IRTENBIDEA DA

Elementu baten arazoa bestearen konponbide
bihur dadin saiatu.



“Kirrin egiten
duen bisagra da
olioa lortzen
duena.”



NATURAREKIN LANA EGIN, EZ HAREN KONTRA

Permakulturaren funtsa natura behatzean
eta imitatzean datza.



“Aukeratu
irakasle bakarra:
Ama Lurra.”

ELEMENTU BAKOITZAK FUNTZIO ASKO BETETZEN DITU

Diseinu baten eraginkortasuna areagotzeko,
elementu bakoitza ahalik eta funtzio gehien
betetzeko asmoarekin aukeratu eta
kokatu.



“Benetako
arrakasta dituzun
gaitasun guztiak
aprobetxatzea
da.”



FUNTZIO GARRANTZITSU BAKOITZAK HAINBAT ELEMENTUREN SOSTENGUA JASOTZEN DU

Funtzio bera bermatzen duten hainbat elementu
edukitzeak sistemaren erresilientzia
areagotzen du.



“Bakarka,
tanta bat gara.
Elkarrekin,
itxasoa.”